

1995eko AZAROaren 21eko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatzehun eta laurogeitamabosteko azaroaren hogeitabatean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Inaxio Olaetxea Karrera, Ima Zubeldia Luloaga, Julian Zubeldia Aierbe, Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BATZORDEEN OSAKETA

Udaleko Alkatea den, Jose Antonio Mintegi Arratek, hitza harturik, dio:

1.995eko Ekainaren 27an eginiko Bilkura Berezian, Udaleko Batzorde Informatzaileak, Udalkideekin osatu ziren eta herriko jendeak parte hartzeko epe bat zabaldu zen.

Epe hori igarota, Udal Batzorde Informatiboak, honela osatuta geratzen dira:

GIZARTE ONGIZATEA

Zinegotzia: IMA ZUBELDIA LULOAGA

Partaideak: M^a JESUS AROZENA SAN SEBASTIAN
JUAN MAÑU IBARGUREN ETXEBERRIA

KIROLAK ETA GAZTEDIA

Zinegotzia: INAXIO OLAETXEA KARRERA

Partaideak: MIKEL ZELAIA EZENARRO
IÑAKI AIESTARAN AROZENA
EDURNE ZINKUNEGI ZABALA
JON ANDER FERRERO BENGOETXEA
GORKA ZUBILLAGA OTXOTORENA
AITOR ZUBILLAGA OREJA
IÑAKI MENDIGAIN ZINKUNEGI
AITOR AGIRREBARRENA BELDARRAIN
JOSEBA ITURRALDE AGIRREBARRENA
XABIER ARTZADUN MENDIZABAL
GARIKOITZ ETXEBERRIA GOIKOETXEA
ANDER OLAETXEA GOIKOETXEA

EKONOMIA ETA AURREKONTUEN NAGUSITZA

Zinegotzia: JULIAN ZUBELDIA AIERBE

Idazkaria: ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

HIRIGINTZA ETA ZERBITZUAK

Zinegotziak: JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE
INAXIO OLAETXEA KARRERA
JULIAN ZUBELDIA AIERBE
RAMON BENGOETXEA ALTUNA
Partaideak: JOSE M^a ZUBILLAGA ZUBIARRAIN
JOAKIN LULOAGA ALTUNA
ITZIAR BALERDI URDANPILLETA

Idazkaria: ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

KULTURA, EUSKARA, HEZKUNTZA, FESTAK

Zinegotzia: IMA ZUBELDIA LULOAGA

Partaideak: JUAN MAÑU IBARGUREN ETXEBERRIA
ALXARTE Aiestaran AROZENA
MARIAN OLANO ZABALA
XABINO SAN SEBASTIAN MURUA
JUAN MANUEL BALERDI URDANPILLETA
EDURNE ZINKUNEGI ZABALA
ANDER OLAETXEA GOIKOETXEA

BASERRIGINTZA ETA UDAL-BASO/MENDI ZAINZTA

Zinegotziak: JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE
JOSE ARZADUN EGILUZ
MANUEL BARRIOLA TOLOSA

Partaideak: MIKEL ZEBERIO ARTOLA
LONTXO GOIKOETXEAUNDIA MARTINEZ

GOLTZUR ZELAIKO PLANA

Alkateak hitza harturik, Lizartzako Laguntzazko Arau Subsidiarioetako Goltzur Zelaiko Paisaiaren Babespenerako Plan Bereziaren Analisia-Diagnostikoa eta Aurrerapen Agiria aurkeztu du, bere onarpenerako.

Agiri honen xedea, Goltzur Zelai barrutiko ingurunearen AZTERKETA ETA DIAGNOSTIKOA burutzea eta GOLTZUR ZELAIKO PAISAIAREN BABESPENERAKO PLAN BEREZIAren instrumentu informatiboa eta

instrumentu arautzailea bilakatzea da, esku hartze eta antolamendurako erabakien arautzaile, Goltzur Zelaiko lur eremuaren babes eta potentziate paisajistikorako.

Goltzur Zelaiko Paisariaren Babespenerako Plan Bereziaren Analisia-Diagnostikoa eta Aurrerapen Agiria aztertuz gero, Lizartzako Herriaren Aldeko 3 Udalkideek, zera proposatu dute:

Aurrerapen honi onarpena eman aurretik, Plan horrekin afektatuak diren lur jabeekin bilera bat egitea, Plan honen berri eman eta beren iritzia jaso ahal izateko.

Herri Batasunako Alkate eta Udalkideek erantzuten diete, beraiek planteatzen duten bilera hori, onarpena eman eta gero egingo dela, zeren eta, jendaurrean jarri eta agertzekotan, aurrez, Udalak onartu beharra duela.

Gaia sakonki eztabaidatu ondoren, Lizartzako Herriaren Aldeko 3 Udalkideen ezezko botoekin eta Herri Batasunaren aldeko 4 botoekin, Lizartzako Laguntzako Arau Subsidia-rioretako Goltzur Zelaiko Paisariaren Babespenerako Plan Bereziaren Analisia-Diagnostikoa eta Aurrerapen Agiria, gehiengo batez, onartua izan da.

AURREKONTUAREN ALDAKETA PUNTUALA

KREDITU GAIKUNTZA BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU-ALDAKETARAKO 1. ZK. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA

Lizartzako Udal honen 1.995eko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 5.741.650,- pezetako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskan ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoen Kontuhartzailatza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU-ALDAKETARAKO 2 ZK. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA

Udal honetako Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako Espedientea irakurri ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 34. artikuluan eta Toki Entitateen Aurrekontu-Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuaren 40. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei egokitzen zaiela.

Era berean, Ogasuneko Informazio Batzordeak formulatutako aldeko txostena eta onespren proposamena irakurri dira.

Dagokion eztabaidaren ondoren botutara jarri da eta berataratuen aho batez, honako hau

ERABAKI DA

- 1.- Udal honetako aribideko ekitaldiko Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, formulatutako proposamenaren eta ondoko Kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU-GEHIKUNTZAK

<u>Kapituluak</u>	<u>Izendapena</u>	<u>Igoerak</u>
601.01	Pistetan Obrak	601.191,-
IGOERAK GUZTIRA		601.191,-
=====		

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

1.994 urteko Altxortegi Gerakin Likidoa.

- 2.- Jendaurreko informaziorako tramitean jar bedi, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behinbetikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

UR KONTSORTZIOA

Gipuzkoako Ur Kontsortziotik jakinerazi dutenez, Estatutuen 22. artikulua aldatu beharra dago, proposamen hau luzatzen dutelarik:

22. Artikulua.- Elkargoko Organoen Funtzionamendua

1.- Batzarrearen eta Batzorde Exekutiboaren batzarraldiak baliozko izan daitezen, lehenengo deian, haiek osatzen dituzten kideen erdia baino bat gehiago joatea beharrezko da eta quorum hau batzarraldi osoan zehar egon behar du.

Bigarren deialdian, Batzarreko bileretan, Kontsortzioa osatzen duten kideen botoen erdia baino bat gehiago egotea nahiko izango da, beti ere, gutxienez, kideen herena dagoenean.

Ur Kontsortzioko Estatutuetako 22. Artikuluaren aldaketa, aho batez onartua izan da.

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN ZERGA-OINARRIA OSATZEN DUTEN PARTIDAK ZEHAZTEA

Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren (aurrerantzean EIOZ) uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauak Zerga honen zerga-oinarria zehazterakoan honako hau xedatzen du:

3.1. Art.- "Eraikuntza, instalazio edo obrearen kostu erreal eta efektiboak osatzen du Zergaren zerga-oinarria".

4. Art. 1.- Beharrezko baimena ematen denean, behin-behineko likidazioa egingo da eta interesatuek aurkezturiko aurrekontuaren arabera zehaztuko da zerga-oinarria, beti ere, dagokion Elkargo Ofizialak

aurrekontua ikus-onetsi eta gero. Beste edozein kasutan nahiz lizentzia lortu ez denean, udal-teknikoek zehaztuko dute zerga-oinarria, egitasmoari irizitako kostuaren arabera.

- 2.- Egindako eraikuntza, instalazio edo obrak eta beraien benetako kostua ikusirik, Udalak, bidezko administrazio-egiaztaletaren bitartez, aurreko apartatuan adierazitako zerga-oinarria aldatuko du, behin-betiko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa eskatu edo itzuli ahal izango dio, dagokionaren arabera.

Aurreko artikuluetan ikus daitekeen moduan, EIOZren zerga-oinarriaren zenbatekoa zehazteko modua erabakita geratu da, eraikuntza, instalazio edo obraren kostu erreal eta efektiboaren bitartez alegia; baina Foru Arauan ez da zehazten zein partidak osatzen duen aipatu kostua. Administrazio-doktrina nahiz jurisdikzio-doktrina azken puntu hori zehazten ahalegindu dira, baina ez datoz bat.

Zentzu horretan, Zergen Zuzendaritza Nagusian (ZZN) 1.992ko abenduaren 19an egin zitzaion galderari horrela erantzun zuten:

"Eraikuntza, instalazio edo obraren kostu erreal eta efektiboaren partidatzat hartuko dira, baina aipamen moduan eta ez zehaztaperen zehatz moduan, aipatu eraikuntza, instalazio edo obrak eragindako zuzeneko eta zeharkako kostu oro, hala nola: egitasmoa egin eta obrak zuzentzeagatik profesionali ordaindutakoa, obran erabilitako materialen kostua, obran ari diren langileen soldatak eta alokairuak, kontratistaren edo eraikitzailearen industri-mozkina e.a.

Aitzitik, oraingoan ere zehaztaperen zehatza egiteko asmorik gabe, ez dira kostu erreal eta efektiboan sartuko hanko partida hauek: industri-makinen kostuari buruzkoa, eraikuntza-instalazio- edo obra-elementuen kostuari buruzkoa, horien kolokazioak eta higipenak, modu isolatuan harturik,

hirigintzako lizentzia lortzea beharrezkoa ez dutenean, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kostuari buruzkoa".

Bestalde, Auzitegi Gorenak gai honen inguruan lau epai hauek eman ditu:

- 1.- Auzitegi gorenaren 1.994-02-01eko Epaia (AGE).- AGak kasazio-errekurtsoa ezetsi du, ezin baita onartu errekurtsogilearen asmoa, hau da, eraikuntzaren nagusiarentzat obrak egitetik sortzen diren ordainketa guztiak, arkitektu eta aparejadore profesionalen ordainsariak barne ("kostu erreal eta efektiboa" hitzen interpretazio gramatikala hartuz gero), Zergaren zerga-oinarrian sartzea. Izan ere, arautegi ezargarriaren arabera, interesatuek aurkezturiko egitasmoan oinarrituta kuantifikatu behar da zerga-oinarria, beti ere, aipatu egitasmoa bidezko Elkargo Ofizialak ikusonetsi badu. Horiek horrela, AGak hitzez hitze hauxe dio: "... eta aurrekontu hori egitasmoaren exekuzio materialarena besterik ez da, arkitektoaren eta aparejadorearen ordainsariak, nahiz eta Elkargoaren kontrolgaiak izan, ez baitira obraren exekuzio materialaren aurrekontuan sartzen".
- 2.- Auzitegi gorenaren 1.994-02-03ko epaia (AGE). Aurreko epaiaren ildo beretik, Agak hauxe dio: "... zerga-oinarria kuantifikatzeko obraren exekuzio materialaren aurrekontua hartuko da kontuan. Aurrekontu horretan ez dira sartzen obra-egitasmoa egiten eta burutzen aritzen diren arkitektoaren eta aparejadorearen ordainsariak, ez eta kontratistaren industri mozkina edo obra-egitasmoaren gastu orokorren portzentaia ere.
- 3.- Auzitegi Gorenaren 1.994-05-26ko Epaia (AGE). Epai honen edukiak, neurri batean, kontraesan bat du beregan; izan ere, alde batetik, aurreko bi Epaien ildotik, termino arazo sortzailearen interpretazio gramatikaren ondorioz, obra egitea obraren beraren nagusiarentzat ekar ditzakeen gastu guztiak kostu erreal eta efektibotzat har daitezkeela pentsa dezakegun arren, arautegi aplikagarriaren azterketa sistematikoa eginez gero ikus dezakegu:

"... interesatuek aurkezturiko egitasmoaren arabera kuantifikatzen da zerga-oinarria". Baina, bestalde, amaieran esaten da arlo honetan ez direla deduzitu behar gastu orokorrak, ez eta industri mozkinak ere.

4.- Auzitegi Gorenaren 1.994-06-29ko Epaiak (AGE). Epai hau bi lehenengo epaien bidetik doa, hauexek baitira: "... obraren nagusiak egindako ordainketa guztiak, eta obraren ondorioz egin direnak ez dute eraikuntzaren kostu erreal eta efektiboa osatzen, nahiz eta espresio gramatikalak hori pentsatzea eraman gaitzakeen. Aitzitik, interesatuek ikus-onespenerako bidezko Elkargo Ofizialean aurkezturiko aurrekontuaren ordainketek soilik osatuko dute eraikuntzaren kostu erreal eta efektiboa..."

Ikus daitezkeen moduan, Auzitegi Gorenaren hiru Epaiak ditugu, argi eta garbi, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren exekuzio materialaren aurrekontua kontuan hartzen dutenak EIOZren zerga-oinarria kuantifikatzeko. Horien parean, Auzitegiaren beste Epai bat dugu, aurreko epaietan ez bezala, zerga-oinarriaren osaketarako beste kontzeptu batzuk, hau da, gastu orokorrak edo industri mozkinak, kontuan hartzen dituenak. Dena den, azken epai honen azalpena ez da oso argi geratzen.

Horiek horrela eta, gainera, kontuan hartzen badugu jurisprudenzian gertatu ohi dena (besteak beste, Auzitegi Gorenaren 1.981-09-23ko, 1.981-12-16ko eta 1.989-12-11ko Epaiak): erabaki juridikional bakar batek ez du jurisprudenzia-doktrinarik osatzen. Oraingoz, AGAk Epai bidezko doktrina bateratzailea ematen ez duen bitartean, EIOZren zerga-oinarria eraikuntza, instalazio edo obraren exekuzio materialaren aurrekontutik eratorritako zenbatekoak osatuko duela ulertuko dugu.

Esan behar da Ordenantza Fiskalei gehitzen zaizkion arauak, Foru Arau baten artikulua garatzen dituzten legezko xedapenak direnez, garatzen duten Foru Arauarekin bat etorri beharko dutela eta ezin izango dutela Foru Arauaren arauetatik harantzago joan.

Hori guztia kontuan izanik, Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren Ordenantza Fiskal arautzaileak aldatzea bidezkoa dela uste dugu eta, zentzu horretan, horien zortzigarren artikulua aldatzen dugu, batetik, uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauean zerga-oinarriari gehitzen ez zaizkion gastuak gehitzen dizkiolako, eta, bestetik, hirugarren atalaren interpretazioa nahasia delako.

2.- Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren Ordenantza Fiskalaren 8. artikulua erredakzio-proposamena

- 1) Eraikuntza, instalazio edo obraren kostu erreal eta efektiboak osatzen dute Zergaren zerga-oinarria.**
- 2) Aurreko zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako, interesatuek aurkezturiko exekuzio materialaren aurrekontua kontuan hartuko da, bidezko Elkargo Ofizialak ikus-onetsi badu.
- 3) Aurreko apartatuan adierazitako ezaugarriak betetzen ez dituen aurrekontuaren kasuan nahiz aurretiazko lizentzia lortu ez duten eraikuntza, instalazio eta obraren kasuan, udal-teknikoek zehaztuko dute zerga-oinarria, egitasmoari iritzitako kostuaren arabera

Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren zerga-oinarria osatzen duten partiden zehaztapena, aho batez onartu dira.

ALKATETZAREN DEKRETUAK

BIXENTE OLAETXEA GARAIKOETXEA Jaunari, Kale Nagusia 11ean, 2. solairuko leihoak aldatzeko baimena.

PILAR GARAIKOETXEA ESNAOLA Andreari, Apeztegi Berri etxearen sukaldeko berrikuntzak egiteko baimena.

MANUEL GOIKOETXEAUNDIA PAGOLA Jaunari, Kale Nagusia, 32 eta 34ean dauden lokaletan ate burnizkoak jartzeko baimena.

JOSE ARZADUN EGILUZ Jaunari, Istileta Bekoa baserriaren fatxada zarpeatzeko baimena.

TOLOSALDEA GARATZEN S.A.k, 1.995eko Apirilaren 24ean egin beharreko batzarraldian, Udal honen izenean aritzeko, Leaburu-Txaramako Alkateari ahalmenak ematea.

MARIA GARMENDIA GARMENDIA Andreari, Zubiaurre Etxeko Fatxadaren pintaketa egiteko baimena.

JOSE ANTONIO ZEBERIO ARTOLA Jaunari, Etxeberri Baserrian sukaldeko berrikuntza egiteko baimena.

ROSARIO URDANPILLETA GOGORZA Andreari, bere etxeko komungelako konponketa eta zurgintza aldaketa egiteko baimena.

JESUS OLASKOAGA LERTXUNDI Jaunari, Kale Nagusia, 25ean eskatutako baimena EMATEA, baldintza hauen arabera:

OBRA HASI AURRETIKO BALDINTZAK:

- 1.- Obrak hasi aurretik, obretan parte hartuko duten Zuzendari eta Aparejadorearen izendapenen berri emango zaio Udalari.
- 2.- Inolaz ere ez dira obrak hasiko ez badira aldez aurretik egiaztatzen bai obra partikularren eraikuntza eta errekonozimenduaren eskubide eta tasen ordainketak egin direla Udal Fondoen Gordailu Zaintzan, haiei dagozkien Exakzio Ordenantzen arabera, eta baita ere, lizentzia honen baldintza

partikularretan, hala egokituz gero, eska daitezken abalak edo beste fidantzak ezarri direla.

- 3.- Aurrean ezarritakoa bete gabe egikaritzen hasitako obra klandestinoztat joko da, eta dagozkion zehazpenak ezarriko zaizkio.
- 4.- Obrak egiteko jarri behar den gruaren kokapen lekua eta beraren besoak hartzen duten biraua, plano batean markatu beharko dira.

Baita ere, Kale Publikoa, elementu auxiliarrekin behin behineko okupatu behar bada, planoan markatu beharko da.

OBRAK EGIKARITZEN ARI DIREN BITARTEKOAK

- 4.- Obrak, Arkitektoen Elkargo Ofizialak, 1.995eko Maiatzaren 23ko dataz bisatutako proiektuari, eta 1.995eko Abuztuaren 7ko dataz, Udaletxean aurkeztutako idatziari egokituko zaizkie.
- 5.- Obrak, lizentzia ematen den egunetik hasitako SEI HILABETEKO epean hasiko dira, erabat buruturik izan beharko dute, onartutako proiektuaren arabera 18 HILABETEKO epean.
- 6.- Eraikuntzak dirauen bitartean, Eraikuntzako Udal Ordenantzatako arau eta ebazpen guztiak hertsiki beteko dira, inolako aitzakiz, punturik txikienean ere, onarturiko proiektua aldatu gabe, aipatu Ordenantzetan ezartzen denez, idatziz eskatutako Udal lizentzia eskuratu ez bada. Ordenantzak betetzen ez dituzten obrak, interesdunaren kontura eta beraren arriskutan eraitsiko dira.
- 7.- Obrak dirauten bitartean, lizentziaren titulartasuna aldatuko balitz, Udalari jakinerazi beharko zaio.

OBRAK AMAITUTAKOAN

8.- Lizentziaren titularrak, obrak amaitutakoan, berauen ikuskapena eskatuko du. Eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztuko dira:

- a) Beharrezko baimenarekin aldaketaren bat gertatu izan balitz, obra geratu den behinbetiko egoeraren planoak, bertan birmoldatuz gertatu diren aldaketak, espedientean zehaztasunez jasorik gera daitezzen.
- b) Obra Zuzendariaren ziurtagiria, obrak, onetsitako proiektuaren eta bereziki ezarritako baldintzen arabera egikaritu direla baieztatuaz.
- c) Obra lizentziaren tasaren behinbetiko likidazioa egitearren, obren eta egindako instalazioen benetazko kostua kreditatzen duen ziurtagiria, dagokion Kolegio Ofizialaren bisatuarekin.
- d) Benetan egin diren ur eta saneamendu lotuneen plano, 1/500 eskalan.

9.- Herriko Ur Saretik ura hartzeko baimena lortzeko berriz, Uraren Boletina aurkeztu beharko da.

10.- Eraikina ezingo da okupatu, aurretik lehen erabilerako lizentzia lortu gabe. Eskaera honekin batera hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Lurralde Kontribuzio Hiritarraren alta-agiria.
- b) Eraikinaren fatxadaren argazkiak 18 x 24 neurrian.
- c) Udal kartografiako planoen gainean eginik 1/500 eskalako planoak, partzelaren azken egoera azalduz, azaleko eraikuntzak, egindako eraikinak, eta altimetrian gertatu diren aldaketak jasoaz.

11.- Obra berriaren aitopenen eskrituraren kopia simple bat aurkeztu beharko da.

12.- Argi Indarra eransteko, Iberdrolak ematen duen baimen boletina aurkeztu beharko da.

BALDINTZA BEREZIAK:

1.995eko Abuztuaren 7an, Udaletxean aurkeztutako idatziaren arabera, ezin izango da, Gurutz Bidea Kale aldera inolako aterik atera.

Kale eta Espaloi publikoak erabiltzeagatik, 200.000,- peztatako fidantza bat gordailatu beharko da Udal Fondoen Gordailu Zaintzan.

LONTXO GOIKOETXEAUNDIA GARAIKOETXEA Jaunari, Basaitzene Berri etxean obrak egiteko baimena.

MARTIN MENDIA ALTUNA Jaunari, Lardi Berri etxearen inguruan obrak egiteko baimena.

JUAN GARZIARENA AURKIA Jaunari, beren txabolara dijoazten eskailerak zabaltzeko baimena.

LORENZO BARRIOLA TOLOSA Jaunari, berak egindako eskaerari, dekretu hau luzatu zaitzaion:

Juan Cruz Goñi Lizartzaren jabetzakoa den, Gazteluko Errotara Lizartzatik doan herri bidea, gaur egun daukan zabalero guztian erabilera uztea. Beharrezkoa ikusiz gero, langa edo ixturen bat jartzea egongo da, baina, bidearen zabalero guztia hartzen duelarik.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamaikak laurdenagutxiago direnean.